

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua sortu ahal izateko, hainbat enpresekin harremanetan jarriko ginateke, orrazia eta spray-a sortzeko material bereziak beharko genituzkelako. Horretarako, atal honetan, enpresa bakoitza zehaztu eta ordenatuko ditugu.

Hasteko, gure produktua sortzeko ezinbestekoa izango litzateke spray-a edukitzea, kizkurtzea kendu ahal izateko. Horretarako, kimikariak beharko genituzke spraya sortzeko. Orduan, guk kimikako enpresa batekin harremanetan jarriko ginateke, enpresa honek Nextmol izena du. Enpresa hau aukeratu dugu, beraiek molekuletan espezializatuta daudelako. Alde batetik, zenbat spray egitea beharko genituzken jakiteko, beste aldetik, elkarlanean arituko ginateke, ordezeko spray-ak sortzeko.

Orrazi berezi hau sortzeko JANEKE enpresarekin harremanetan jarriko ginateke. Batez ere, enpresa honek gure orraziaren ereduak egiten dituelako aukeratu dugu. Gainera, orraziaren heltzeko lekua desberdina izango da beste orrazi batzuekin konparatuta, eta enpresa honek orrazi eredu guztietan oinarritzen dira. Gure produktuaren spray-a hor kokatuta egongo da. Ondoren, orraziaren goi atala egiteko, gure lehengo proposamena ile lisua duten pertsonentzako aproposameta izago litzateke eta bigarrena ile kiribilduta dute pertsonentzako izanlitzake aproposena.

UGGASA sozietatearekin harremanetan jarriko gara gure lokala aurkitzeko. UGGASA Kapital publikoa duen, irabazi-asmorik ez duen eta interes orokorreko jarduerak sustatzen dituen erakundea da. Honek Urola garaiko enpresei laguntza eman dezake. Guk UGGASA sozietatea aukeratu dugu Urola Garaiko enpresei laguntza eskaintzeko espezializatua delako, lokal egokiak aurkitzeko tokiko merkatuaren ezagutza sakona duelako.

Amazonekin kontaktuan jarriko gara gure produktua Espainia mailan ez ezik, Europa mailan ere saldu ahal izateko. Horrela gure produktuak leku desberdinetara iristeko aukera edukiko du eta hainbat pertsonen kizkurtzearekin laguntzeko modua edukiko genuke.

Gure enpresak, gure produktuak bidaltzeko, beste enpresa batekin jarriko ginateke harremanetan haiek produktuak etxeetara bidaltzeko. Enpresa, Correos izango da. Enpresa honek, Espainian zehar produktua bidaltzeko aukera emango du. Etxera eramateaz gain, bilketa puntuan jasotzeko aukera ere edukiko du. Enpresa hau, herri gehienetan fisikoki dagoenez, puntu bilketarako erraztu egingo du.